

OT-001-2016

Gaia: Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

Asunto: Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun Zenbakia: 65
Nork aurkeztu du: **Bilbaína de Alquitranes, S.A.**
Aurkezpen data: 2022/02/09

Sugerencia N°: 65
Presentada por: **Bilbaína de Alquitranes, S.A.**
Fecha de presentación: 09/02/2022

IRADOKIZUNAREN LABURPENA

Aditzera ematen da ezen Bilbaína de Alquitranes S.A. (BASA) industria-instalazioak Barakaldoko Lutzana-Burtzeña eremuan kokatuta daudela (eremua, HAPOn arabera, hiri-lurzoru industrial gisa sailkatua), eta Europako talde siderurgiko nagusietako kokabaterietatik datorren harriatz-mundrunaren distilazioan oinarritzen dutela beren jarduerak.

Ikusienez, LPPren berrikuspen-dokumentuak BASA sartu du Lutzana-Burtzeñako Berritzeko Eremuaren barruan (AR 8), eta, hari buruz ari dela, oso kutsatzailatzat jotzen du eta hirigintza-oztopoa dela dio. Era berean, eremu hori Punta Zorrotzako Berrikuntza Eremuarekin bateragarria den esparru bateko parte da.

LPPk enpresa-elkartegi berri bat garatzea proposatzen du (Burtzeña elkartegia); antolamenduaren helburuetako bat kutsaduraren arazoa eta dauden hirigintza-oztopoak konpontzea da.

Horretarako, antolamendu-irizpide gisa planteatzen da Zorrotza-Burtzeña OE.3 Eragiketa Estrategiko osoa antolatzea, BASA enpresaren instalazioek okupatutako azalerak barne.

1. Alegatzen da BASA enpresa ez dela kutsatzailea, ingurumen-baimen integratua duela, urtero ingurumen-ikuskapenak egiten dizkiotela, Eusko Jaurlaritzaren Airearen Kalitatea Zaintzeko Programaren barruan dagoela eta dagozkion kalitate-ziurtagiriak dituela.

RESUMEN DE LA SUGERENCIA

Se pone de manifiesto que las instalaciones industriales de Bilbaína de Alquitranes, S.A. (BASA), localizadas en el ámbito de Lutzana-Burtzeña en Barakaldo (clasificado como Suelo Urbano Industrial según el PGOU), centran su actividad en la destilación de alquitrán de hulla procedente de las baterías de cok de los principales grupos siderúrgicos europeos.

Se observa que el documento de Revisión del PTP incluye BASA en el Área de Regeneración de Lutzana-Burtzeña (AR 8), refiriéndose a la empresa como "muy contaminante que constituye una barrera urbanística". Asimismo, esta área forma parte de un ámbito de compatibilización con el Área de Renovación de Punta Zorroza.

El PTP propone desarrollar un nuevo parque empresarial (Burtzeña Parkea), siendo uno de los objetivos de la ordenación "resolver el problema de contaminación y barreras urbanísticas existentes".

A tales efectos, se plantea como criterio de ordenación "la ordenación de la totalidad de la Operación Estratégica OE.3 Zorrotza-Burtzeña incluyendo las superficies ocupadas por las instalaciones de la empresa BASA."

1. Se alega que BASA es una empresa no contaminante, que dispone de Autorización Ambiental Integrada, que se somete a inspecciones ambientales anuales, que se encuentra integrada en el Programa de Vigilancia Ambiental de calidad de aire del Gobierno Vasco y que cuenta con los correspondientes Certificados de Calidad.





2. Bilboko Itsasadarreko eremu estrategikoaren antolamenduan BASAren instalazioak kanpo uzteko eskatzen da, uste baita edozein hirigintza-eragiketa bateragarri egin behar dela lehendik dagoen enpresarekin eta haren mantentzea eta jarraitutasuna bermatu behar direla. Horren harira, gogorarazi behar da gertaera erabakigarriak kontrolatzeko doktrinari eta plangintza-erabakien legezkotasunari buruzko iritzia buruzko jurisprudentzia, eta plangintza-egilearen erabakia egungo errealitatearekin baloratu eta haztatu.

2. Se solicita que en la ordenación del Área estratégica de la Ría de Bilbao se excluyan las instalaciones de BASA, por considerar que cualquier operación urbanística debe compatibilizarse con la existencia de la empresa preexistente, garantizando su mantenimiento y continuidad. Al hilo de esta consideración trae a colación jurisprudencia en relación con la doctrina de control de los hechos determinantes y el juicio de legalidad de las decisiones de planeamiento, valorando y ponderando la decisión del planificador con la realidad existente.

IRADOKIZUNARI EMANDAKO ERANTZUNA

1. Iradokizunean aurkeztutako dokumentazioa ikusita, LPPk «oso kutsatzailea» adierazpena saihestuko du BASA aipatzen duenean, argi uzteko enpresak ingurumenean eragina duen jarduera bat garatzen duela eta jarduera hori ingurumen-baimen integratuaren araubide juridikoaren pean dagoela (eguratsera isuritakoak, isuriak eta sortutako hondakinak prebenitzeko eta kontrolatzeko), ingurumena eraginkortasunez babesteko eta kutsadura kontrolatzeko.

Baina, haren presentzia eta legezko hirigintza-egoera gorabehera, epe luzerako lurralde-antolamenduaren ikuspegitik ezin dira zenbait ebidentzia aipatu gabe utzi: gaur egun duen kokapenak eremu horren guztiaren etorkizuneko antolamendua baldintzatzen du, hurbileneko bizitegi-erabilerekin bateragarria ez den jarduera bat garatzen du, uholde-arriskuko eremu batean dago, eta, trenbideekin batera, hirigintza-oztopo bat da, Lutzana bizitegi-auzoa Lutzana-Burtzeña BEPBn proiektatutako enpresa-elkartegitik isolatzen duena.

2. V. eranskinean espazio garrantzitsuei buruz eta, bereziki, Barakaldoko Lutzana-Burtzeñako ER-8 berroneratze-eremuari buruz jasotako informazioan, udal-plangintzaren aurreikuspenak jasotzen dira, baita beste erakunde sektorial batzuenak ere, eta haiei LPPren irizpide, iradokizun, baldintzatzaile eta gidalerro lotesleak gehitzen zaizkie, antolamenduak eskaintzen dituen aukera irekien aurrean.

CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

1. A la vista de la documentación aportada en la sugerencia, el PTP evitará la expresión “muy contaminante” para referirse a BASA, para aclarar que la empresa desarrolla una actividad con incidencia en el medio ambiente, sujeta al régimen jurídico de la Autorización Ambiental Integrada para la prevención y el control de emisiones a la atmósfera, vertidos y residuos generados, en orden a la efectiva protección del medio ambiente y el control de la contaminación.

Sin embargo, sin perjuicio del hecho de su presencia y su situación urbanística legal, desde el punto de vista de la ordenación territorial a largo plazo no pueden dejar de señalarse algunas evidencias: que su ubicación actual condiciona la futura ordenación de todo ese ámbito, que desarrolla una actividad no compatible con los usos residenciales más próximos, que está en un área inundable, y que constituye, junto con las vías del ferrocarril, una barrera urbanística que aísla el barrio residencial de Lutzana del parque empresarial proyectado en el PERI Lutzana - Burtzeña.

2. En la información incluida en el Anexo V sobre los Espacios Relevantes y, en particular, sobre el ER-8 Área de regeneración de Lutzana-Burtzeña, en Barakaldo, se recogen las previsiones del planeamiento municipal, así como las de otros organismos sectoriales, a las que se añaden criterios, sugerencias, condicionantes y directrices vinculantes del PTP ante las posibilidades abiertas que ofrece la ordenación.





Zehaztapen horiek Euskal Herriko Lurralde antolamenduari buruzko 4/1990 Legearen 12. artikularekin bat egiten dira; artikulua horrek LPPri hau esleitzen dio: «Birregokiketaren, birroneratzearen edo birgaitzearen gai izan beharreko tokien zehaztapena, horien andeapena eragozteko edo erabat edo bere baten bestelakoak izanezko erabileretarako birreskuratu ahal izateko.»

LPPk adierazitako helburu eta irizpideen artean —zeinak espazio hori antolatze kontuan hartu beharko diren— honako hau ezartzen da gidalerro lotesle gisa: «Egiturazko antolamenduko elementuen plangintza koordinaturako eredua», BFaren Lurralde Antolamenduko Atalak 2014ko urtarrilaren 29an egindako eta Bilboko eta Barakaldoko udalei bidalitako txostenari erantsia.

Jarduketa-esparru horretan eta gaur egungo edo etorkizuneko egoeran, Barakaldoko hirigintza-plangintzaren berrikuspenak zehaztuko du oraindik garatu ez den indarreko antolamendua.

Beti ere, berrikuspen hori aplikatzekoa den hirigintza-plangintzako araudiaren arabera egingo da, egoera faktikoen kontrolarekin. Egoera horien artean, BASA izan beharko da nahitaez, lehendik dagoen enpresa gisa, legez ezarrita dagoena, lurzoruen okupatzailea eta jabea, eta dagozkion eskubideak dituen, Lurzuari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean ezarritakoaren arabera.

Eskaeran adierazitako oharak (edozein hirigintza-aurreikuspenek kontuan izan behar du enpresa lehendik dagoela) ez du esan nahi LPPk Bilboko itsasadarreko ACEren antolamendutik kanpo utzi behar dituenik BASaren instalazioak. Aitzitik, abiapuntuko datu gisa jaso behar ditu, etorkizuneko hirigintza-plangintzan kontuan har daitezen.

Estas determinaciones se realizan de acuerdo con el artículo 12 de la Ley 4/1990, de Ordenación del Territorio, que atribuye a los PTP la “definición de los espacios que hayan de ser objeto de remodelación, regeneración o rehabilitación con el fin de evitar su degradación o de conseguir su recuperación para usos, total o parcialmente distintos”.

Entre los objetivos y criterios señalados en el PTP que deberán tenerse en cuenta para la ordenación de ese espacio se establece como directriz vinculante el “Modelo para la planificación coordinada de los elementos de ordenación estructural”, anexo al informe de la Sección de Ordenación del Territorio de la DFB de 29 de enero de 2014, enviado a los ayuntamientos de Bilbao y Barakaldo.

En este marco de actuación y en el actual o futuro estado de cosas, será la revisión del planeamiento urbanístico de Barakaldo la que concrete la ordenación vigente que aún no se ha desarrollado.

En todo caso, esta revisión se realizará de acuerdo con la normativa de planeamiento urbanístico que resulte de aplicación, con el control de las situaciones fácticas, entre las que habrá de contarse necesariamente con BASA como empresa preexistente, legalmente implantada, ocupante y propietaria de los suelos, con sus correspondientes derechos, según lo establecido en la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo.

La observación reflejada en la solicitud de que cualquier previsión urbanística debe tener en cuenta la preexistencia de la empresa no implica que el PTP deba excluir las instalaciones de BASA de la ordenación del ACE Ría de Bilbao. Por el contrario, debe recogerlas como un dato de partida para que se tengan en cuenta en la futura planificación urbanística.

LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL

